

Baso suteak eta begirada kontserbazionista



GORKA MENENDEZ
MILITANTEA, NEKAZARIA
ETA BOTANIKOA

Suaren presentzia naturan milioika urtetan izan da (gizakion agerpena baino askoz lehenagotik). Horregatik, ohikoa da landare askok suaren aurrean adaptazio ugari edukitzea. Gure inguruan arruntak diren arteek eta amezteak, adibidez. Baita txilar askok eta otea bezalako sastraka lekaleek ere. Badaude landare batzuk erretzea su baten ondoren aktibatzen dutenak. Hots, sua beharrezkoa dute modu egokian ugaltu ahal izateko. Alepo pinua, itsas pinua edota estrepak (*cistus* generoko espezieak), landare pirofiloak dira. Erraz eta arin su hartzeko diseinatutako landareak dira: askok konposatu sukoiak dituzte hosto eta azaletan. Beraz, ekosistema batzuetan (Mediterraneo eremukoak bereziki) sua erabat ekidin ezina da, landare batzuentzat beharrezkoa. Hori horrela izanik, zein izan behar da kudeaketa irizpidea, bai ala bai erreko den eremu batean? Niri bi aukera okurritzen zaizkit: bat, sua ekiditen saiatzen bagara, biomasa metatuko da eta lehenago edo geroago itzelezko sutea gertatuko da. Edo bi, maiztasun handiagoarekin su kontrola-

Mendiei sua eman behar diegu ekosistemak babesteko eta sute katastrofikoak ekiditeko? Ez edozein modutara eta ez hori bakarrik, baina bai

tu eta txikiagoak egin, su/biomasa oreka maila baxuagoan mantentzeko.

Historikoki, nekazaritza komunitateak horren jabe izan dira eta sua eta abeltzaintza erabili izan dituzte paisaia kudeatzeko: maiztasun jakinarekin egindako suteek paisaia oreka eraiki dute eremu askotan. Gurean ikusten ditugun belardi eta sastrakadi habitat gehienak baldintza historiko horien emaitza dira, eta balio ekologiko handikoak, gainera. Gaur egun, orde, sua deabrutu eta debe-

katzeko joera orokortu da eta abeltzaintza estentsibo gero eta gutxiago dago. Ondorioz, babestu nahi ditugun habitat batzuk degradatzen doaz eta biomasa mendietan metatuz doa.

Orduan, mendiei sua eman behar diegu ekosistemak babesteko eta sute katastrofikoak ekiditeko? Ez edozein modutara eta ez hori bakarrik, baina bai. Askorentzat sakrilegioa izango da hori, eta normala da, begirada kontserbazionista hedatuta baitago gaur egun. Iruditegi horren arabera, gizakia ekosistemen dinamikan aldagai arrotza da beti, eta ondorioz, giza esku hartze oro (zer esanik ez mendiari sua ematea!) "oreka naturala" hausten duen arazoa da. Horrek guztiak, gizakiok ukitu gabeko eremuak hoberen kontserbatutakoak direla pentsatzera garamatza. Bada, gizakia eta naturaren arteko haustura hori, modernitate kapitalistaren eskutik orokortzen dena, arazo ekologiko eta gatazka sozialen iturri bilakatu da. Suteen afera horren erakusle da: fenomeno konplexua da, faktore ugari zeharkatua, eta gizakia-natura haustura darama bere erroan. ●

bat Soziolinguistika aldizkaria

BAT 135. ZENBAKIA FAMILIEN HIZKUNTZA-POLITIKA

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko
ikergunea



- OLATZ ALTUNA ZUMETA, JAIME ALTUNA RAMIREZ ETA JOSU OZAITA AZPIROZ > Bilbon euskaraz hazi. Haur txikiak dituzten gurasoen hizkuntza-praktikak eta bizipenak.
- MAITE GARCIA-RUIZ > Euskararen jarraipena sustatzeko familien estrategiak.
- EIDER SARAGUETA ETA OIHANA LEONET > Helduen ikuspegitik udalerrri euskaldunetako haurren euskara erabileraren mapa osatzen.
- MAITE GARCIA-RUIZ, IBON MANTEROLA ETA ANIK NANDI > Herritartasun soziolinguistikoa gaztelania nagusi den eremu eleaniztuneko familietan.

harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

- Lau hilez behin, BAT aldizkaria etxean bertan.
- Lau hilez behin, BAT aldizkaria PDFn eta EPUB-en jaso.

<https://bat.soziolinguistika.eus> / 943 592 556
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus

GUUREAN atala

- AUXKIN GALARRAGA > Hizkuntzen kudeaketa korporatiboari buruzko teoria eta praktika Euskal Herrian: euskararen kudeaketarako zergatiak eleaniztasunaren orokortze garaietan.
- LIONEL JOLY > Euskararen bizitasun digitala vs euskararen etorkizuna - "hoc tempore obsequium amios, ueritas odium parit".